

Euskal AEko ondasunen esportazioak % 4,1 handitu ziren 2025eko uztailan, eta inportazioak % 6,2

Produktu energetikoen esportazioek, ordea, % 49,4 egin zuten behera

2025eko uztailan, Euskal AEko **ondasunen esportazioek** % 4,1eko urte arteko hazkundea izan zuten, Eustaten datuen arabera. Zenbatekoa 2.654 milioi eurokoa izan zen, aurreko urteko hilabete bereko 2.550 milioi euroen aldean. Ondasun *energetikoen* esportazioak % 49,4 murriztu ziren eta *ez-energetikoenak* % 7,3 handitu ziren.

Arabako esportazioak % 10,1 igo dira eta Gipuzkoan % 7,5; aitzitik, Bizkaiko esportazioak % 4,2 jaitsi dira.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Uztaila 2025

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Uztaila			Uztaila		
	2024	2025	Gehikuntza (%)	2024	2025	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETE, GUZTIRA	2.549.994	2.654.119	4,1	2.267.133	2.407.365	6,2
ENERGIAZKO GAIAK	143.813	72.789	-49,4	508.598	468.878	-7,8
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	2.406.181	2.581.329	7,3	1.758.535	1.938.487	10,2
URTEKO METATUA	18.376.325	18.370.995	-0,0	16.086.967	16.010.798	-0,5
ENERGIAZKO GAIAK	1.256.086	739.911	-41,1	4.342.829	3.329.631	-23,3
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	17.120.239	17.631.083	3,0	11.744.138	12.681.166	8,0
ARABA / ÁLAVA						
HILABETE, GUZTIRA	778.752	857.081	10,1	552.395	698.580	26,5
URTEKO METATUA	5.353.046	5.804.751	8,4	3.533.777	4.191.805	18,6
BIZKAIA						
HILABETE, GUZTIRA	914.689	876.506	-4,2	1.254.314	1.236.347	-1,4
URTEKO METATUA	7.132.061	6.402.871	-10,2	9.388.265	8.464.338	-9,8
GIPUZKOA						
HILABETE, GUZTIRA	856.554	920.532	7,5	460.423	472.438	2,6
URTEKO METATUA	5.891.218	6.163.372	4,6	3.164.925	3.354.654	6,0

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Data 2025eko irailaren 23a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Euskal AEko **ondasunen inportazioek** % 6,2ko igoera izan zuten eta 2.407 milioi eurora iritsi ziren. Inportazio *energetikoen* % 7,8 egin zuten behera, baina *ez-energetikoen* % 10,2 gora.

Merkataritza-saldoa positiboa da (247 milioi euro) eta estaldura-tasa % 110,2koa.

Arabako inportazioak % 26,5 igo dira, eta Gipuzkoakoak % 2,6; baina Bizkaikoak % 1,4 jaitsi dira.

Produktuen arabera (muga-zergen partidak)

Xehetasunetan arreta jarritz, uztailan muga-zergen bost partida esportatzaile nagusiak hauek dira: *"10 pertsona baino gutxiagoko turismoak"* (310,2 milioi esportatu dira, urte arteko 85,2 milioiko gehikuntzarekin edo % 37,9 gehiago kopuru erlatiboetan); *"Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak"* (170,5 milioi, 38,7 milioiko gehikuntzarekin eta % 29,3ko hazkunde erlatiboarekin); *"Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak"* (138,7 milioi, 42,8 milioiko gutxitzearekin, hau da, -% 23,6); *"Petrolio-olio finduak"* (57,3 milioi esportatu dira, aurreko urtearekin alderatuta 14,6 milioiko murrizketarekin, hau da -% 20,3); eta *"Hodietarako txorroten, balbula eta antzeko organoen artikulua"* (54,7 milioi eta % 17,3ko gehikuntzarekin). Partida horiek guztizkoaren % 27,6 hartzen dute eta, guztira, 731,4 milioi euroko balioa dute.

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Uztaila 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.549.994	2.654.119	100,0	4,1
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	224.993	310.172	11,7	37,9
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	131.794	170.473	6,4	29,3
Automobilentzako zati eta osagarriak	181.456	138.682	5,2	-23,6
Petrolioaren olio finduak	71.959	57.328	2,2	-20,3
Txorrotetarako artikulua, balbulak eta antzekoak tutuetarako	46.635	54.702	2,1	17,3
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	48.709	48.660	1,8	-0,1
Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiari-autoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	37.122	48.458	1,8	30,5
Hodidak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	52.417	41.435	1,6	-21,0
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	34.886	40.275	1,5	15,4
Kautxuzko pneumatiko berriak	71.659	36.949	1,4	-48,4
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketaetarako euskarriak	28.119	35.584	1,3	26,5
Turborreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	36.690	34.393	1,3	-6,3
Burdina edo altzairuzko gainerako enbriaturak	31.947	31.695	1,2	-0,8
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	15.170	31.526	1,2	107,8
Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	22.491	31.155	1,2	38,5
Igogailuak, eskalera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	35.143	31.020	1,2	-11,7
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	27.905	28.809	1,1	3,2
Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisan % 70etik beherako edukierekin	18.439	26.112	1,0	41,6
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	21.024	25.909	1,0	23,2
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	24.493	24.787	0,9	1,2
Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	27.316	24.036	0,9	-12,0
Xafien bidez eraikuntzak, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-eta, burdinako edo altzairuko antzeko	22.417	23.989	0,9	7,0
Bizarra kentzeko, zorrotzeko, harriz lantzeko, artezteko, leuntzeko edo metal edo zermeterako beste akabera-eragiketa batzuk egiteko makina-erremintak	13.732	22.716	0,9	65,4
Ardoa, mahats freskoarena	20.893	21.404	0,8	2,4
Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak	23.443	20.644	0,8	-11,9

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Irailaren 23a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Araban, "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" (lurralde honetan esportatutako guztizkoaren % 33,2) eta **"Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak"** (zifra globalaren % 19,8), hots, muga-zergen bi partida nagusiek gehikuntza nabarmenak izan dituzte aurreko urtearekin alderatuta, 72,7 milioi euro (% 34,3) eta 37,8 milioi euro (% 28,7) hurrenez hurren. Aitzitik, atzera egin du **"Kautxuzko pneumatiko berriak"** partidaren (34 milioi gutxiago edo -% 74,3), baita **"Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak"** partidaren ere (-% 38,2 eta 19,1 milioi gutxiago).

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Uztaila 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	778.752	857.081	100,0	10,1
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	212.124	284.802	33,2	34,3
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	131.686	169.509	19,8	28,7
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	42.394	35.476	4,1	-16,3
Automobilentzako zati eta osagarriak	50.060	30.916	3,6	-38,2
Ardoa, mahats freskoarena	18.995	19.912	2,3	4,8
Hodiak eta hodien osagarriak [adibidez: loturak (erragailuak), ukondoak, zorroak], nikelezkoak	3.619	18.191	2,1	402,7
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	10.869	13.219	1,5	21,6
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satellite eta ibilgailu espazialen zatiak	12.217	12.773	1,5	4,6
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	13.427	12.640	1,5	-5,9
Kautxuzko pneumatiko berriak	45.816	11.761	1,4	-74,3

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Irailaren 23a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Bizkaian nabarmentzekoa da *"Soja-olioaren"* hazkundera, 46 mila eurotik (2024ko uztaillean) 20,2 milioira (aurtengo uztaillean) igaro baita, eta *"10 pertsona baino gutxiagoko turismoa"* (23,5 milioi esportatu % 100,8ko hazkundera). Aitzitik, Bizkaian esportazio-pisu handiena duten bi partidak murriztu egin dira: *"Petrolio-olio finduak"* eta *"Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak"*, % 21,3 eta % 28,5 jaitsi baitira hurrenez hurren, lehenengo kasuan 14,8 milioi euroko atzeraldi absolutuarekin eta bigarrenen 15,1 milioi eurokoarekin.

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Uztaila 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	914.689	876.506	100,0	-4,2
Petrolioaren olio finduak	69.560	54.725	6,2	-21,3
Automobilentzako zati eta osagarriak	53.132	37.995	4,3	-28,5
Turboreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	36.446	34.183	3,9	-6,2
Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisan % 70etik beherako edukiarekin	18.439	26.112	3,0	41,6
Kautxuzko pneumatiko berriak	25.277	24.499	2,8	-3,1
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	11.728	23.543	2,7	100,8
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	17.193	22.291	2,5	29,7
Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	17.874	21.999	2,5	23,1
Soja-olioa	46	20.167	2,3	43.751,3
Berotan ijetzitako produktu lauak, aleatu gabeko eta txapatu edo estali gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak > 599 mm	11.856	19.777	2,3	66,8

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Irailaren 23a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Gipuzkoan aipagarriak dira *"Hamar pertsona edo gehiago —gidaria barne— garraiatzeko ibilgailu automobilak"* eta *"Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiari-autoak, bagajeak, posta eta abar"* atalen igoerak, 16,1 eta 11,2 milioi euro gehiago baitira aldi berak alderatuz; hau da, % 106,2ko eta % 30,3ko hazkundeak izan dira hurrenez hurren. Aitzitik, behera egin dute *"Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak"* partida nagusiko esportazioek (–% 10,9).

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Uztaila 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	856.554	920.532	100,0	7,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	78.265	69.770	7,6	-10,9
Trenbideetarako eta antzakoetarako bidaiariautoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	37.077	48.311	5,2	30,3
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	46.352	44.547	4,8	-3,9
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzakoak tutuetarako	33.475	41.453	4,5	23,8
Burdinbide eta antzakoetarako ibilgailuen parteak	31.058	37.145	4,0	19,6
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	15.170	31.279	3,4	106,2
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	29.929	26.001	2,8	-13,1
Bizarra kentzeko, zorrotzeko, harriz lantzeko, arteztzeko, leuntzeko edo metal edo zermeterako beste akabera-eragiketa batzuk egiteko makina-erremintak	13.555	22.667	2,5	67,2
Burdina edo altzairuzko gainerako enbriak	19.686	21.435	2,3	8,9
Ontziak eta paketatutako aparatuak garbitzeko, betetzeko, itzeko, etiketatutako makinak	22.520	19.385	2,1	-13,9

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Irailaren 23a

Iturria: Eustat, Kanpo-merkataritzaren estatistika

Inportazioak aztertuz gero, ikusten da hirugatik biderkatu direla "10 pertsona baino gutxiagoko turismoen" erosketa (% 190,0), 33,5 milioitik 97,1 milioira pasatuz. Halaber, asko hazi dira "Metal preziazko bitxigintzako gaiak, baita estaliak edo xaflatuak ere" (% 471,8; eta 33,3 milioi, inportatuak) eta "Petrolio-olio finduak" (% 18,3; eta 108 milioira iritsiz). Partida garrantzitsuenak, "Petrolio edo mineral bituminosoko olio gordinak", % 12,1 egin du behera (359,5 milioi euro inportatu ditu). Horrez gain, lehenengo hamar partidetatik beste bik atzerakada nabarmenak izan dituzte balio absolutuetan: "Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak" (-% 11,7 eta 10,3 milioi gutxiago) eta "Berotan ijeztutako produktu lauak, aleatu gabeko eta xaflatu edo estali gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak > 599 mm" (-% 36,0 eta 26,1 milioi gutxiago).

Jatorri/helmuga herrialdeak, 2025eko uztaila

Hilabete honetan, ranking esportatzailearen lehen postuetan honako hauek daude:

- Alemania:** 431,5 milioiko balioa duten produktuak jaso ditu gure erkidegotik, % 103,9ko estaldura-tasarekin.
- Frantzia:** 359,1 milioi euroko ondasunak esportatu dira herrialde horretara, % 191,8ko estaldura-tasarekin.
- Erresuma Batua:** 188,9 milioi euroko balioagatik esportatu da, % 339,5eko estaldura-tasarekin.
- Estatu Batuak:** gure esportazioetatik 162,9 milioi herrialde horretara bideratu dira, eta estaldura-tasa % 166,0koa izan da.
- Italia:** herrialde horretara 156,5 milioi euroko salmentak egin dituzte, % 141,4ko estaldura-tasarekin.

Bost herrialde horiek esportazioen guztizkoaren % 48,9 hartzen dute; horietako hiru EB27koak dira eta bertan biltzen da esportazioen % 59.

2025eko lehen zazpi hilabeteetako metatuan, esportazioek 5.331 euro egin dute atzera 2024ko aldi berarekin alderatuta, eta 2.360 milioi euroko merkataritza-saldo positiboa izan dute

Lehenengo zazpi hilabeteetan, eta Euskal AEko esportazioek ia ez dute aldaketarik izan (% -0,03) aurreko urteko aldi beraren aldean, hau da, 5.331 milioi euro gutxiago izan dira. Esportazioen zenbatekoa, berriz, 18.371 milioikoa izan da aldi horretan.

Bizkaiko esportazioak Euskal AEko handienak dira, 6.402,9 milioi euro guztira; Gipuzkoakoak 6.163,4 milioi euro eta Arabakoak 5.804,8 milioi euro.

Produktu mota kontuan hartuta, Euskal AE osoan "Produktu ez-energetikoak" izan ziren nagusi esportazioan, 17.631,1 milioi euroekin, 2024ko lehen zazpi hilabeteetan baino % 3,0 gehiago. Hazkunde hori ez zen homogeneoa izan; Bizkaiko esportazioak % 10,2 jaitsi ziren bitartean, Arabako eta Gipuzkoako esportazioek aurreko urtekoak gainditu zituzten, % 8,4an eta % 4,6an, hurrenez hurren. Era berean, "Produktu energetikoen" esportazioek % 41,1eko atzerapena izan dute urte arteko konparazioan.

"10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" partida esportazioen artean liderra da 2.038,3 milioi merkaturarekin, eta % 39,0ko igoera izan du. 25 partida nagusien artean, hazkunde esportatzaile handienak —% 100etik gorakoak— honako hauetan eman dira: "Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiari-autoak, bagajeak, posta eta abar" (278,4 milioi euro esportatu eta % 106,4 gehiago); ondoren datoz "Soja-olioa" (139,6 milioi euro esportatu eta % 156,3 gehiago) eta "Trenbide edo antzekoetarako ibilgailuen parteak" (319,7 milioi euro esportatuta —aurreko urteko aldi berean baino 153,1 milioi euro gehiago—). Beste aurrerapen nabarmen batzuk partida hauetan eman dira: "Turborreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, horien zatiak eta osagaiak barne" (42,4 milioi euro gehiago) eta "Hodietarako txorroten, balbula eta antzeko organoen artikuluak" (46,0 milioi euro gehiago).

Aitzitik, partida nagusietako hirutan atzerapenak izan dira: "Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak" (–% 11,9 eta 164,3 milioi gutxiago), "Kautxuzko pneumatiko berriak" (–% 29,0 eta 187,2 milioi gutxiago) eta "Petrolio-olio finduak" (–% 34,2 eta 325,8 milioi gutxiago).

Euskal AEko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera, urteko metatua (p). Uztaila 2025

	Kodea	Izendapena	Mila euro
	ESPORTAZIOAK GUZTIRA		18.370.995
1	8703	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	2.038.283
2	8708	Automobilitzako zati eta osagarriak	1.212.524
3	8704	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	928.728
4	2710	Petrolioaren olio finduak	626.230
5	4011	Kautxuzko pneumatiko berriak	458.733
6	7216	Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	361.928
7	8481	Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	355.477
8	7304	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	330.912
9	8607	Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	319.744
10	8411	Turborreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	280.164
11	8605	Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiariautoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	278.361
12	7606	0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	238.921
13	8504	Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	222.468
14	7326	Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	222.145
15	8537	Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	206.416
16	9990	Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	192.700
17	8428	Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	176.226
18	8702	Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	166.223
19	7222	Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	159.912
20	8501	Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	149.762
21	7325	Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	146.609
22	8483	Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	144.692
23	8301	Metal arruntezko giltzarrapo, sarraila, morroilo eta giltzak	140.580
24	1507	Soja-olioa	139.572
25	7306	Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	138.028

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko irailaren 23a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika


2025eko lehen zazpi hilabete hauetako rankingaren arabera, Alemania da herrialde hartzaile nagusia, esportatutako guztizkoaren % 15,1ekin 2.775,8 milioi euroko balio baterako. Herrialde horretatik oso hurbil dago Frantzia, 2.701,2 milioi euroekin eta esportatutako guztizkoaren % 14,7rekin. Ondoren datoz Erresuma Batua (1.203,3 milioi eta % 6,5), Estatu Batuak (1.106,8 milioi eta % 6,0) eta Italia (1.086,2 milioi, % 5,9); bost herrialde horien artean Euskadiko esportazioen % 48,3 biltzen da.

Euskal AE osorako inportazioen metatua 16.011 milioi euro ingurukoa da. Urte arteko alderaketa eginez gero, ikusten da aurreko urteko aldi berean erregistratutakoa baino 76 milioi euro gutxiago dela. Jaitsiera horren arrazoia da Bizkaiak (8.464 milioi) % 9,8 gutxiago inportatu duela (924 milioi). Bestalde, Arabako inportazioak 658 milioi euro (4.191,8 milioi guztira), eta Gipuzkoakoak 189,7 milioi euro (3.354,7 milioi euro guztira) igo ziren.

"Produktu ez-energetikoak" partidaren inportazioa % 8,0 igo da, baina "Produktu energetikoen" partidarena % 23,3 jaitsi da.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2025eko urtariletik uztaile, 2.360 milioi euroko saldo positiboa izan du, eta estaldura-tasa % 114,7 izatera heldu da.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62